

2026-2027 ikasturtea
**Vitoria-Gasteizko
Haurreskolak
Partzuergoaren
Haur Eskoletako
eta Udal Haur
Eskoletako onarpena**

2024an, 2025ean eta 2026an jaiotako haurrak

Aurkibidea

Izena emateari eta onarpenari buruzko informazio hitzaldiak	3
Kokapena eta harremana	5
Ezaugarri orokorrak. Haurreskolak Partzuergoa	6
Ezaugarri orokorrak. Udal Haur Eskolak.	7
Onartzeko ohiko epea (eskolan irailean hasteko)	8
Ikasturtean zehar onartzeko hileko epeak	9
Eskaera orria eta dokumentazioa aurkezteko tokiak Zerrendak kontsultatzeko tokiak	10
Nahitaezko dokumentazioa	12
Baremo puntuak lortzeko dokumentazioa	14

EGILEA:

Haurreskolak Partzuergoa / Eusko Jaurlaritza
eta Hezkuntza Zerbitzua / Vitoria-Gasteizko Udala

DISEINU GRAFIKOA ETA MAKETAZIOA:

La Debacle

INPRIMATZAILEA:

Héctor Soluciones Gráficas

L.G.: VI 161-2024

www.vitoria-gasteiz.org/haureskolak

Izena emateari eta onarpenari buruzko informazio hitzaldiak:

Informazio gehiago behar baduzue, informazio hitzaldi hauetan parte har dezakezue:

- 2026ko apirilaren 14an, Salburua Gizarte Etxean.
 - » 3. Askotarako gelan, 10:30ean: euskaraz.
- 2026ko apirilaren 15ean, Salburua Gizarte Etxean.
 - » Ekitaldi Aretoan, 18:00etan: gaztelaniaz.


Itzulpen zerbitzua edo Zeinu hizkuntzako Interpretea behar izanez gero, idatzi eskolahh@vitoria-gasteiz.org helbide elektronikora edo deitu 945 16 12 18 telefono zenbakira, gutxienez 5 egun lehenago.

Horrez gain:

- Informazio guztia eskuragarri izango duzue honako webgune honetan: www.vitoria-gasteiz.org/haureskolak
- Herritarrei Laguntzeko Bulegoetako eta 010eko langileek zuen zalan-tzak argitu ahal izango dituzte.



Eskaneatu
QR kodea zure
mugikorrarekin



Legend:
PARKS
SCHOOLS
BUS STOPS
BUS STATIONS

14

9

11

8

10

12

3

7

13

5

4

16

6

18

19

15

17

20

Kokapena eta harremana

	Haurreskolak Partzuergoaren Haur Eskolak
	Udal Haur Eskolak

2024AN JAIOTAKO
HAURRENTZAT

2025EAN ETA 2026AN
JAIOTAKO HAURRENTZAT



	HAUR ESKOLAREN IZENA	HELBIDEA	TELEFONOA		
ERDIALDEA	1 ARANA	Gurutze Berdea, 6 (Arana)	945 281 411		●
	2 ARANBIZKARRA	Jose Pablo Ullibarri, zk.g. (Aranbizkarrak)	945 206 438		●
	3 EL PILAR	Caracas, 6 (Pilar)	945 223 697		●
	4 HAURTZARO	Santa Maria kantoia, zk.g. (Alde Zaharra)	945 162 642	●	●
	5 TXAGORRITXU	Gasteiz Hiribidea, 85-A (Txagorritxu)	945 242 333		●
	6 TXIMELETA	Ricardo Sacristán, 38 (San Martin)	945 224 557		●
	7 ZARAMAGA	Nafarroako Errege- erreginak, 16-b (Zaramaga)	945 162 653	●	●
IPARRALDEA	8 GLORIA FUERTES	Gernikako Arbola, 2 (Arriaga-Lakua)	945 252 361		●
	9 IBAIONDO	Bartzelona, 23 (Ibaiondo-Lakua)	945 197 861		●
	10 LAKUABIZKARRA	Baiona, 14 (Lakua)	945 197 929		●
	11 LANDABERDE	Zarautz, 6 (Lakuabizkarrak)	945 175 257		●
	12 L. LEJARRETA	Blas de Otero, 12 (Lakua)	945 162 654	●	●
	13 SANSOMENDI	Valentin de Foronda, 4 (Sansomendi)	945 162 646	●	●
	14 VIRGEN BLANCA	Plaza Nagusia, zk.g. (Abetxuko)	945 204 908		●
MENDEBALDEA	15 ARIZNABARRA	Ariznabarra, zk.g. (Ariznabarra)	945 235 225		●
	16 GALTZAGORRI	Nazio Batuen hiribidea, 8 (Zabalzana)	945 358 095		●
	17 MARITURRI	Leza, 6 (Zabalzana)	945 429 108		●
	18 ORTZADAR	Gurutze Gorriaren ibilbidea, 8 (Zabalzana)	945 357 827		●
	19 ZABALGANA	Ilustrazioaren hiribidea, 46 (Zabalzana)	945 162 637	●	●
HEGO-EKIALDEA	20 GURUTZMENDI	Jauregilanda kalea, zk.g. (Adurtza)	945 157 302		●
	21 HENRIKE KNÖRR	Helsinki, 3 (Salburua)	945 011 684		●
	22 IZARRA	Astronomoak kalea, 19 (Santa Luzia)	945 253 352		●
	23 KATAGORRI	Praga hiribidea, 34 (Salburua)	945 336 767		●
	24 SALBURUA	Erroma hiribidea, 2 (Salburua)	945 335 389		●

Ezaugarri orokorrak

HAURRESKOLAK PARTZUERGOA

ESKOLAK	<ul style="list-style-type: none">• Arana• Aranbizkarra• Ariznabarra• El Pilar• Galtzagorri• Gloria Fuertes• Gurutzmendi• Henrike Knörr• Ibaiondo• Izarra• Katagorri• Lakuabizkarra• Landaberde• Mariturri• Ortzadar• Salburua• Txagorritxu• Tximeleta• Virgen Blanca
INSKRIBATU AHAL IZANGO DIRA	<ul style="list-style-type: none">• 2025ean jaiotako haurrak.• 2026an jaiotako haurrak (17 aste beteta izan behar dituzte eskolan hasteko).
EZIN IZANGO DIRA INSKRIBATU	Urtebetetik beherako haurrak , baldin eta haien gurasoak edo legezko tutoreak amatasun eta/edo aitatasun baimenak baliatzen ari bazarete.
ORDUTEGIA	Goizekoa: 07:30etik 14:00etara. <ul style="list-style-type: none">• Sarrera: 07:30etik 09:30era.• Irteera: 13:00etik 14:00etara. Egun osokoa: 07:30etik 16:00etara. <ul style="list-style-type: none">• Sarrera: 07:30etik 09:30era.• Irteera: 15:00etatik 16:00etara.
KUOTA	DOAKOA
JANTOKIA	Haurrek eskolan bazkaldu ahal izango dute. Horretarako, familiok janaria etxetik eraman behar duzue. Catering zerbitzua ere hauta dezakezue, horretarako aukera dagoenean. Cateringa familiek kudeatu eta ordaindu behar duzue.



Ezaugarri orokorrak

UDAL HAUR ESKOLAK

ESKOLAK	<ul style="list-style-type: none">• Haurtzaro• Lourdes Lejarreta• Sansomendi• Zabalzana• Zaramaga
INSKRIBATU AHAL IZANGO DIRA	<ul style="list-style-type: none">• 2024an jaiotako haurrak.• 2025ean jaiotako haurrak.• 2026an jaiotako haurrak (17 aste beteta izan behar dituzte eskolan hasteko).
EZIN IZANGO DIRA INSKRIBATU	Urtebetetik beherako haurrak, baldin eta haien gurasoak edo legezko tutoreak amatasun edo/eta aitatasun baimenak baliatzen ari bazarete.
ORDUTEGIA	<p>Goizekoa: 08:00etatik 13:00etara.</p> <ul style="list-style-type: none">• Sarrera: 08:00etatik 09:30era.• Irteera: 12:30etik 13:00etara. <p>Egun osokoa (jantoki zerbitzua barne): 08:00etatik 16:00etara. (*)</p> <ul style="list-style-type: none">• Sarrera: 08:00etatik 09:30era.• Irteera: 15:15etik 16:00etara. <p>(*) Ordutegi hori, oro har, honako hauen menpe dago:</p> <ul style="list-style-type: none">• Bi gurasoak edo legezko tutoreak edo, guraso bakarreko familiaren kasuan, guraso edo legezko tutore bakarra lan merkatuan lanean egotea (egoera hori izena emateko edo ordutegia eskatzeko unean justifikatu behar da).• Jantokiko plaza hutsak egotea eskatutako udal haur eskolan. <p>Ordutegi horretan, jantoki zerbitzua aukerakoa da 6 hilabete baino gutxiago daukaten haurrentzat.</p>
KUOTA	DOAKOA, jantoki zerbitzua izan ezik (08:00etatik 16:00etarako ordutegian); horren prezioa hilean 36,20 eurokoa da.
JANTOKIA	Janaria eskolan bertan prestatzen da, garaioak diren eta, hein handian, ziurtagiri ekologikoa eta 0 km-koa daukaten produktuak erabilia.

Onartzeko ohiko epea (eskolan irailean hasteko):

1. ESKAERAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO EPEA:

2026ko apirilaren 13tik maiatzaren 4ra.

2026ko maiatzaren 1etik 10era bitartean jaiotako hurrek 2026ko maiatzaren 20ra arte (egun hori barne) eman ahalko dute izena.

2. ESKATZAILEEN ZERRENDA: **2026ko maiatzaren 22an.**

Zuen eskaeraren egoera ezagutu ahalko duzue. Egoera hori honelakoa izan daiteke:

- » Osoa, eta beraz, izapidetzeko onartua.
- » Osatu gabea, eta nahitaezko zein dokumentazio falta den zehaztuta.

3. NAHITAEZKO DOKUMENTAZIOA ZUZENTZEKO EPEA: **2026ko maiatzaren 25etik ekainaren 5era.**

Ez da onartuko eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko epean aurkeztu ez den eta nahitaezkoa ez den dokumentaziorik.

4. BEHIN-BEHINEKO ZERRENDAK: **2026ko ekainaren 17an.**

- **Onartutako haurren behin-behineko zerrenda eta behin-behineko itxarote zerrenda:** bertan, haurra behin-behinean zein eskolatan onartu den adieraziko da, bai eta itxarote zerrendan dauden haurrak ere.
- **Baremazioaren behin-behineko zerrenda:** eskabidearen baremorako irizpide bakoitzean, eskabide oso bakoitzak lortutako puntuak zehaztuko dira.
- **Izapidetzeko onartu ez diren eskabideen behin-behineko zerrenda:**
 - » Eskabideak osatu gabe: nahitaezko dokumentazioa dagokion epean ez zuzentzeagatik.
 - » Baztertutako eskabideak: eskoletara sartzeko baldintzak ez betetzeagatik.

5. ERREKLAMAZIOETARAKO EPEA: **2026ko ekainaren 17tik 19ra.**

Ez da onartuko dokumentazio berririk.

Baremazio prozesuan okerren bat izan dela adierazten duten erreklamazioak soilik aztertuko dira.

6. BEHIN BETIKO ZERRENDAK: **2026ko ekainaren 26an.**

- **Onartutako haurren behin betiko zerrenda eta behin betiko itxarote zerrenda:** bertan, haurra behin betiko zein eskolatan onartu den adieraziko da, bai eta itxarote zerrendan dauden haurrak ere.
- **Baremazioaren behin betiko zerrenda:** eskabidearen baremorako irizpide bakoitzean, eskabide oso bakoitzak lortutako puntuak zehaztuko dira.
- **Izapidetzeko onartu ez diren eskabideen behin betiko zerrenda:**
 - » Eskabideak osatu gabe: nahitaezko dokumentazioa dagokion epean ez zuzentzeagatik.
 - » Baztertutako eskabideak: eskoletara sartzeko baldintzak ez betetzeagatik.

Eskaera horiek **indarrik gabe** geratuko dira; beraz, beste eskaera bat aurkeztu beharko duzue.

Erreklamazioetarako epea bukatu ondoren, aldaketak egon daitezke. Horregatik, **behin betiko zerrenda ikustea** gomendatzen dizuegu.

Ikasturtean zehar onartzeko hileko epeak

Ikasturtean zehar **plaza hutsak dituzten eskoletan** baino ezin izango da izena eman. Plaza hutsen inguruko informazioa eskuragarri egongo da Vitoria-Gasteizko Udalaren webgune honetan: www.vitoria-gasteiz.org/haureskolak

Plazak hilero esleituko dira prozedura honi jarraituz:

1. ESKAERAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO EPEA: **hilaren 1etik 8ra (biak barne).**

2. ESKATZAILEEN ZERRENDIA: **hilaren 12tik 15era (biak barne).**

Zuen eskaeraren egoera ezagutu ahalko duzue. Egoera hori honelakoa izan daiteke:

- » Osoa, eta beraz, izapidetzeko onartua.
- » Osatu gabea, eta nahitaezko zein dokumentazio falta den zehaztuta.

3. NAHITAEZKO DOKUMENTAZIOA ZUZENTZEKO EPEA: eskatzaileen zerrendaren jakinarazpenaren **hurrengo 3 lanegunak.**

Ez da onartuko eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko epean aurkeztu ez den eta nahitaezkoa ez den dokumentaziorik.

4. ZERRENDIAK: **hilaren 20tik 23ra.**

- **Onartutako haurren zerrenda eta itxarote zerrenda:** bertan, haurra zein eskolatan onartu den adieraziko da, bai eta itxarote zerrendan dauden haurrak ere.
- **Baremazioaren zerrenda:** eskabidearen baremorako irizpide bakoitzean, eskabide oso bakoitzak lortutako puntuak zehaztuko dira.
- **Izapidetzeko onartu ez diren eskabideen zerrenda:**
 - » Eskabideak osatu gabe: nahitaezko dokumentazioa dagokion epean ez zuzentzeagatik.
 - » Baztertutako eskabideak: eskoletara sartzeko baldintzak ez betetzeagatik.Eskaera horiek **indarrik gabe** geratuko dira, eta, beraz, beste eskabide bat aurkeztu beharko duzue.

5. ESKOLATZEA: plaza esleitu eta **hurrengo hilabeteko lehen eskola egunean** hasiko dira.

Hileko epe bakoitza hasi baino lehen, **egutegi zehatza** argitaratuko da Vitoria-Gasteizko Udalaren webgunean (www.vitoria-gasteiz.org/haureskolak) eta haur eskola publikoetako iragarki tauletan.

Abenduko, martxoko eta apirileko egutegiak aldatu ahal izango dira, urteko jaiegunen egutegi ofizialera zein haur eskola publikoen egutegiko jaiegunetara egokitu ahal izateko.

Oro har, ez da onartuko ekainean eta uztailean hasteko eskaerarik.

Eskaera orria eta dokumentazioa aurkezteko tokiak

Seme edo alaba bakoitzeko **eskaera orri bat** bete beharko duzue, **sinatu** eta **nahitaezko dokumentazioarekin** batera aurkeztu, bai eta **puntuak lortzeko** aurkeztu nahi duzuen **dokumentazio** guztia ere, modu hauetako batean:

- On-line: horretarako, **identifikazio digitaleko ziurtagiri** bat beharko da (NAN elektronikoa, BAKQ, eta abar).
- Gizarte etxeetako Herritarren Arretarako edozein bulegotan (hitzordua eskatuta) edo San Antonio kaleko 10. zenbakian dagoen Herritarren Arretarako Bulegoan (hitzordua eskatuta edo eskatu gabe).
- Edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako moduan.

Leku horietan bertan entregatu ahal izango duzue nahitaezko dokumentazioa, zuzendu behar baduzue.

Zerrendak kontsultatzeko tokiak

- Udal webgunea www.vitoria-gasteiz.org/haureskolak
- Vitoria-Gasteizko Haur Eskola publikoak.
- 010 telefonoa, BAKQ izanez gero.
- Gizarte etxeetako autotramitazio makinak.
- Herritarren Arretarako Bulegoak, **soilik irailean hasten badira eskolan.**





Nahitaezko dokumentazioa

Aurkeztuko duzuen nahitaezko dokumentazio guztiak Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako batean idatzita egon beharko du, edo itzulpen ofiziala aurkeztu beharko duzue.

a. Familiari dagokion dokumentazioa:

- **NAN edo AIT** atzerritarren kasuan (AIT ez duzuenek pasaportearen aurkeztu ahal-ko duzue). Dokumentua bi aldeetatik aurkeztea ezinbestekoa da.
- **Horretaz gain**, dokumentu hauetako bat aurkeztu beharko duzue, zuen inguru-ruabarren arabera:
 - » **Haurra Erregistro Zibilean inskribatu izanaren fotokopia**, familia liburuaren fotokopia, edo baliokidea.
 - » **Legezko tutorearen edo tutoreen kasuan**, horren egiaztagiriaren fotokopia.
 - » **Haurraren familia harreraren kasuan**, egoera hori egiaztatzen duen ziurtagiri ofiziala.
 - » **Adopzio prozesuan dauden haurren kasuan**, egoera hori egiaztatzen duen ziurtagiria.

Gainera:

- » Banandutako edo dibortziatutako gurasoen kasuan, guraso bati zain-tza ematen dion erabaki judizial irmoa, epaileak berretsitako hitzarmen arautzailearen kopia edo behin-behineko neurrien autoa.
- » Muturreko goiztiartasun edo goiztiartasun handiagatik beheragoko maila batean onartzeko eskabidearen kasuan (Azaroaren 2ko 132/2022 Dekretuaren arabera), egoera hori ziurtatzen duen mediku txostena.



b. Jaiotzagatik eta adingabearen zaintzagatik dagokion lan atsedendia hartu izana justifikatzeko dokumentazioa (Eskolan hasteko datan, urte batetik beherako haurren familientzat SOILIK):

- **Jaiotzagatiko eta adingabearen zaintzagatiko prestazioari buruzko Gizarte Segurantzaren ebazpena.** Justifikatu egin beharko dituzue guraso edo legezko tutore bakoitzeko lan atsedenaldirako 17 asteak (edo ama, aita edo legezko tutorearen 28 asteak, guraso bakarreko familien kasuan, eta 18 asteak erditze anizkoitzen kasuetan).

Gizarte Segurantzaren ebazpenean lan atsedenaldirako aste guztiak agertzen ez badira, gainerako asteak jasotzen dituen **enpresa ziurtagiria ere** aurkeztu beharko duzue.

Ez da eskaera izapidetuko, baldin eta eskolan hasteko egunean familiak (guraso bakarrekoak edo bi gurasoko familiak) **5 astetik** gorako lan atsedendia hartzeko badu.

Jaiotzagatik eta adingabearen zaintzagatik dagokion lan atsedendia lanaldi partzialean hartzen bada, eskaera izapidetuko da, betiere hartutako asteak eta hartzeko daudenak justifikatzen badira.

Jaiotzagatiko eta adingabearen zaintzagatiko prestazioarekin egon arren, gurasoek edo legezko tutoreek gaixotasun larria edo alaba edo semea zaintzeko ezintasuna izanez gero, eskaera izapidetu ahal izango da, egoera hori egiaztatzen duen **mediku ziurtagiria** aurkezten baduzue.

- Jaiotzagatik eta adingabearen zaintzagatik dagokion lan **atsedena hartzeko eskubiderik ez badaukazue, Gizarte Segurantzaren ziurtagiria** aurkeztu beharko duzue, non zehazten den prestazio hori ez dagokizuela edo ez duzuela jaso baldintzak ez betetzeagatik, edo egoera egiaztatzen duen **Gizarte Segurantzaren lan bitzita eguneratua** (dokumentuaren data eta aurkezte dataren artean 3 hilabete baino gehiago pasatu ez badira).



Baremo puntuak lortzeko dokumentazioa

Baremoa berbera da eskola guztientzat, bai Haurreskolak Partzuergokoentzat, bai Vitoria-Gasteizko Udal Haur Eskolentzat.

Ezinbestekoa izango da aurkeztuko duzuen dokumentazioa Euskal Autonomia Erkidego-ko hizkuntza ofizialetako batean idatzita egotea, edo itzulpen ofiziala aurkeztea.

Eskabideen baremazioa irizpide hauen arabera egingo da:

A) Eskolan matrikulatutako anai-arrebak	Puntuak
Anai-arreba bat edo gehiago 2025-2026 ikasturtean eskatutako eskolan matrikulatuta daude eta 2026-2027 ikasturterako berritzen dute.	9
Atal honetako gehieneko puntuazioa	9



OHARRA: Hezkuntza Zerbitzuak ofizioz egiaztatuko du ea anai-arrebarik dagoen matrikulatuta eskatutako eskolan, eskabide orrian adierazi bada.

B) Helbidea edo lantokia (kontzeptu metaezinak):	Puntuak
Amak, aitak edo legezko tutoreak eskatutako eskolan lan egiten duenean. (1)	7
Haurra Vitoria-Gasteizen erroldatuta dagoenean, eta haren bizilekua eta gutxienez gurasoetako edo tutoreetako baten bizilekua bat datozenean. (2)	5
Haurra haur eskola publikorik ez duen udalerrri batean erroldatuta badago eta haur eskola publikoa duen udalerririk hurbilena Vitoria-Gasteiz bada. (3)	5
Haurra Vitoria-Gasteizen erroldatuta ez badago, baina gurasoetako baten edo bien, edo legezko tutorearen/tutoreen lantokia Vitoria-Gasteizko udalerrian badago. (4)	3
Atal honetako gehieneko puntuazioa	7



OHARRAK:

- (1) Hezkuntza Zerbitzuak ofizioz egiaztatuko du ama, aita edo legezko tutorea eskatutako eskolan ari den lanean, eskabide orrian adierazi bada.
- (2) Hezkuntza Zerbitzuak ofizioz egiaztatuko ditu haurraren eta familia unitatearen errolda datuak, Vitoria-Gasteizen.

Beharrezko dokumentazioa:

- (3) Errolda ziurtagiri eguneratua.
- (4) Zuen lanpostua Vitoria-Gasteizen badago, zuen lanpostuaren helbidea jasotzen duen enpresaren ziurtagiria aurkeztu beharko duzue. Norberaren kontura lan egiten baduzue, ekonomia jardueren gaineko zergaren alta aurkeztu beharko duzue.

c) Gurasoen edo legezko tutoreen lan egoera:

(behin betiko ezintasun iraunkor absolutuaren egoera lan egoera aktiboarekin parekatzen da):

	Puntuak
Bi gurasoko familiak: bi gurasoek edo legezko tutoreek lan merkatuan lan egiten dutenean.	5
Guraso bakarreko familiak: amak, aitak edo legezko tutoreak lan merkatuan lan egiten duenean.	5
Bi gurasoko familiak: gurasoetako batek edo legezko tutoretako batek lan merkatuan lan egiten duenean eta bestea enplegu bilaketa aktiboko egoeran edo ikasketa ofizialak egiten dagoenean.	2
Bi gurasoko familiak: bi gurasoak edo legezko tutoreak enplegu bilaketa aktiboko egoeran edo ikasketa ofizialak egiten daudenean.	2
Familia guraso bakar amadun edo aitadunak: ama, aita edo legezko tutorea enplegu bilaketa aktiboan edo ikasketa ofizialak egiten ari denean.	2
Atal honetako gehieneko puntuazioa	5

Beharrezko dokumentazioa:

- Lan merkatuan lanean ari bazarete, Gizarte Segurantzaren lan bizitzaren ziurtagiri eguneratua aurkeztu beharko duzue, edo beste erregimen batean edo mutua batean emandako ziurtagiri eguneratua.
- Enplegu bilaketa aktiboan bazaude, LANBIDERen Lan Eskararen Alta eta Berritze Dokumentu (LEABD) eguneratua aurkeztu beharko duzue eta **eskaera orrian baimena eman** Udaleko Hezkuntza Zerbitzuak LANBIDE Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu bilaketa aktiboari buruzko datuak ofizioz kontsultatzeko.
- Ikasketa ofizialak egiten ari bazarete, kasuan kasuko matrikularen egiaztagiria aurkeztu beharko duzue.
- Adingabeak zaintzeko eszedentzian bazaude, eta lanpostuan hasteko data gehienez ere, haurra eskolan hasi eta hilabetera bada, "lanean egotea" egoerarekin parekatuko da. Lanera itzultzeko data jasotzen duen enpresaren ziurtagiria aurkeztu beharko duzue, lan bizitzaren ziurtagiri eguneratuarekin batera.
- Aldi baterako etete egoera berazian bazaude eta haren amaiera data, gehienez ere, haurra eskolan hasi eta hilabetera bada, "lanean egotea" egoerarekin parekatuko da, eta amaiera data hori jasotzen duen Eusko Jaurlaritzaren ziurtagiri eguneratua aurkeztu beharko duzue.
- Behin betiko ezintasun iraunkor absolutuko egoeran bazaude, Gizarte Segurantzaren ebazpena aurkeztu beharko duzue.

Guraso bakarreko familien kasuan, "g) Familia ugaria edo guraso bakarreko familia" puntuan ezarritakoa hartuko da kontuan.

OHARRA: *datuak ez bada* edo *zehaztasun ezak badaude*, atal hau zero punturekin barematuko da.

D) Familia unitatearen 2024ko urteko errenta (zerga oinarri orokorrak + aurreztearen zerga oinarriak):

	Puntuak
Batura 15.876,00 € edo gutxiagokoa bada.	2
Batura 47.628,00 € edo gutxiagokoa bada.	1,5
Batura 79.380,00 € edo gutxiagokoa bada.	1
Eskaera egiten duen haurra ez den seme-alaba adingabe bakoitzeko.	0.25
Atal honetako gehieneko puntuazioa	4



Beharrezko dokumentazioa:

- Aurkeztu behar duzue familia unitateko kide guztien 2024ko errenta aitopena (bertan 16 urtetik gorako familia unitateko pertsona baten datuak sartzen badira, pertsona horrek beste orri batean ere eman beharko du baimena).
 - Araban aurkeztu baduzue eta baimena ematen badiguzue, Udaleko Hezkuntza Zerbitzuak ofizioz egiaztatuko du.
 - Zergak Araban ordaindu ez badituzue edo ofizioz egiaztatzeko baimenik ematen ez badiguzue, 2024ko errenta aitopenaren fotokopia erantsi beharko diozue izen emate eskaerari.
- 2024ko errenta aitopena egin ez baduzue, 2024ko diru sarreraren egiaztatgiria aurkeztu beharko duzue eskaerarekin batera.

OHARRA: *daturik ez badago edo zehaztasun ezak egonez gero, atal hau zero punturekin barematuko da.*

E) Desgaitasuna

	Puntuak
Eskaera egiten duen haurraren %33ko edo gehiagoko desgaitasunagatik.	3
Gurasoetako batena edo biena edo legezko tutorearena, baita anai-arrebena ere, %33ko edo gehiagoko desgaitasunagatik.	2
Atal honetako gehieneko puntuazioa	3



Beharrezko dokumentazioa:

- Eskaera egiten den haurraren eta, hala badagokio, familia unitateko pertsonen desgaitasun mailari buruzko ziurtagiria aurkeztu beharko duzue, eskumena duen erakundeak emana.

F) Genero-indarkeria:

	Puntuak
Haurra, ama edo legezko tutorea genero indarkeriaren biktima bada.	2



Beharrezko dokumentazioa:

- Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 23. artikuluan jasotako moduren baten bidez egiaztatuko duzue.

G) Familia ugaria edo guraso bakarreko familia:	Puntuak
Kategoria bereziko familia ugariko kide izateagatik.	1,5
Kategoria orokorreko familia ugariko kide izateagatik.	1
2 seme-alaba edo gehiago dituen guraso bakarreko familia batekoa izateagatik.	1,5
Seme edo alaba bakarra duen guraso bakarreko familia batekoa izateagatik.	1
Atal honetako gehieneko puntuazioa	1,5



Beharrezko dokumentazioa:

- **Familia ugariaren** izaera egiaztatzeko, familia ugariaren tituluaren edo txartelaren foto-kopia eguneratua aurkeztu beharko duzue.
 - **Guraso bakarreko familiatzat edo gurasobakartasun egoeran dagoen familiatzat** hartzen dira guraso bakarreko familien araubidea ezartzen duen abenduaren 2ko 232/2025 Dekretuaren 3. artikulua 1 eta 2 puntuetan zehaztutakoak. Hori horrela, guraso bakarreko familia edo gurasobakartasun egoeran dagoen familia ziurtatzeko, honako hauek aurkeztu beharko dituzue:
 - Guraso bakarreko familiaren edo gurasobakartasun egoeran dagoen familiaren ziurtagiria.
- Edo, hori eduki ezean,
- Hori lortzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa; alegia, "Guraso bakarreko edo gurasotasun egoeran dagoen familia izaera aitortzeko eskabidea" orrian zehaztutakoak.

H) Terrorismo indarkeria:	Puntuak
Haurra, ama, aita edo legezko tutorea terrorismo indarkeriaren biktima bada.	1



Beharrezko dokumentazioa:

- Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Giza Eskubideen, Biktimen eta Aniztasunaren Zuzendaritzaren ebazpena, edo Estatuko Administrazioiko edo beste autonomia erkidego bateko erakunde eskudunarena aurkeztu beharko duzue.

I) Familia harrera:	Puntuak
Eskaera egiten duen haurra harrera familia batekin bizi bada.	1



Beharrezko dokumentazioa:

- Dagokion foru aldundian gizarte politiken arloan eskumena duen sailaren ziurtagiria aurkeztu beharko duzue.

Berdinketa hausteko irizpideak

Berdinketa gertatuz gero, aurreko irizpideetan lortutako puntuazio handienaren arabera ebatziko da, banan-banan konparatuta eta jarraian adierazitako hurrenkeran.

1. A) Eskolan matrikulatutako anai-arrebak atalean lortutako puntuaziorik handiena.
2. B) Helbidea edo lantokia atalean lortutako puntuaziorik handiena.
3. E) Desgaitasuna atalean lortutako puntuaziorik handiena.
4. I) Familia harrera atalean lortutako puntuaziorik handiena.
5. F) Genero indarkeriaren atalean lortutako puntuaziorik handiena.
6. H) Terrorismo indarkeriaren atalean lortutako puntuaziorik handiena.
7. G) Familia ugari edo guraso bakarreko familia atalean lortutako puntuaziorik handiena.
8. C) Gurasoen edo legezko tutoreen lan egoera atalean lortutako puntuaziorik handiena.
9. D) Familia unitatearen 2024ko urteko errenta atalean lortutako puntuaziorik handiena.

Berdinketak jarraitzen badu, alfabetoaren hurrenkeran ebatziko da, Eusko Jaurlaritzak urtero ausaz zehazten duen letratik abiatuta, 2026-2027 ikasturterako "R" letra izanik.

Baremazio prozeduraren ondoren, eskabideak lortutako puntuazioaren arabera ordenatuko ditugu, eta plaza hutsa dagoen eskatutako lehenengo eskolan esleituko dizuegu plaza.

